

HERNANIK

kronika

2003 urtea
Apirilak 13
Igandea
Alea: 744
www.kronika.net

AVE MARIA ETA POLITENA PARKEETARA BIXITA GIDATUA, ATZO

Latsunben 80.000 metroko parke publiko haundi bat egiteko aukera ikusten da etorkizunean

■ Mendi Mendian, Nere Borda eta Ave Maria parkeak publikoak dira edo izateko bidean daude eta inguruko beste bi parke lortzeko aukera ere egon liteke, etorkizunean parke publiko haundi bat egiteko.

ATZO goizean, Ave Maria eta Politena parkeak ireki zituzten eta beren egoeraren eta aurrerantzean egiteko asmoa dagoenaren berri eman zuten Udal ordezkariek. Hitzarmen bidez lortu ditu bi parkeak Udalak eta, Manuel Fraile hirigintza zinegotziak esan zuenez, gutxi gehiago, urte bukaerarako egongo dira Udalaren esku.

Parke haundi baten asmoa
Latsunbe eta Antziola artean hiru parke publikoak dira: Mendi Mendian, Nere Borda eta laster Ave Maria. Etorkizunean inguruko beste bi baso lortzeko aukera ere ikusten da eta horrela 8 hektareako parkea geldituko litzateke. Parkeak bi zati izango lituzke, bial berriaren alde bietara, alegia. Teknikoek atzo azaldu zutenez, Latsunbe eta Antziola arteko parke hauek ezaugarri oso desberdinak dituzte elkarrekiko. Nere Borda parkea jardin moduan egina dago: bidexkak, landare mota asko, orden landua... Ave Maria parkean, berriz, belardia eta arbolak daude, nahasian.

Botanikoki antzekoak
Latsunbeko Ave Maria eta Floridak Politenan parkeak botanikoki antzekoak dira, teknikoei atzo esan zutenez. Landare espezie berezietarik ez daukate, baina, badauzkate hemen arruntak diren espezietai pieza izugarriak. Ave Marian esaterako bi ezki (tilo) izugarri daude etxe atarian eta bi magnolio ederrak ere bai parkean. Antziola aldera, sakon bat dauka eta



estanke artifizial moduko bat jartzeko aukera badagoela esan zuten teknikoek.

Politenan parkean gutxi ikusten diren moduko bi haritz haundi daude gainekaldean eta barrenean indi gaztainak eta liquidambar haundi bat, besteak beste. Bi parkeetan txukunketa lanak daude egin beharrak, arbola asko zahartuak eta irituak baitaude. Bai Ave Marian eta bai Politenan etxeak berak ere Udalaren esku geldituko dira, baina, oso estatu desberdinean daude: Ave Maria etxea oso ondo kontserbatua dago, baina, Politenako etxea oso zahartua dago barrutik.

Etxebizitzak
Bi parkeetan etxebizitzak dijioaz saihetsentan. Ave Marian Argarai aldera emango dute etxeek, Latsunbetik



Goian Latsunbeko Ave Maria parkea eta behean Floridak Politenan.

Antziolarra pasatzeko bidea-ren kontra. Politenan Etxeberriko hamargaren bloke-aren segidan joango dira etxebizitzak, frontoi atzeko baratzak dauden horretan. □

Ur Mia elkartearen batzarra gaur

EREÑOTZUKO Ur Mia elkarteak urteko batzarra du gaur. Bi deialdi daude, lehenengoa 10:00etan eta bigarrena 10:30etan. □

ATE JOKA TALDEA

Etxebizitzari buruzko eztabaida gaur

ATE Joka taldeak etxebizitzaren egoerari eta okupazioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu astebururako. Gaur, eztabaida egingo du te plazan *eta orain zer?* erabakitzeko. Arratsaldeko 16:00etan. □

Felipe Sagarna Zapa'ri omenaldia

FELIPE Sagarna Zapari urteroko omenaldia egingo diote gaur bere lagunek, BVEek hil zueneko 23garren urteurrenean. Gudarien Plazatik irtengo dira 13:00etan eta etxe atarian egingo diot omenaldia. Gero Balantxara joango dira Luis M^a Elizondo eta Miguel M^a Arbelaitzen oroinmenezko monolitoan loreak jartzera. □

FUTBOLA

Hernanik 1-2 irabazi dio Beriori eta arnas pixka bat hartzeko moduan da

HERNANIK zaila, baina, irabazi beharreko partidua zuen atzo Donostian, Berio taldearen kontra. Galtzen hasi zen Hernanikoa taldea 1-0 partiduko bigarren minutuan. Hernaniarrek, ordea, ez zuten etsi eta gogor presionatu zuten talde donostiarrak eta azkenean 1-2 irabazi zuten, nahiz eta hernaniarren bi golak Berioko jokalariek sartu beren atean. Iñaki Eskisabel entrenatzalea gustora zegoen jokalarien jarreararekin eta egin-dako partiduarekin. Datorren astean deskantsua dute. □

Zimak
ILEAPAINDEGIA

Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556

KulunKa

- Egurraren zaharberritza
- Tapizeria
- Artisautzazko marketeria

Kontserbazio eta zaharberritza lantegia
Tellerigain, 49 - kulunka@giltza.org
Tel. 943 551 739 - 667 721 434

VGALDETXO
Jatetxea

Bazkariak eta Afariak

Ereñozu auzoa
Tel.: 943 550240
20120 Hernani (Gipuzkoa)

Zure moda Hernanin berrian

yone
boutique
Kale Nagusia 63
Hemen erosiz,
Tenerifera joan
zintezke
50 euroko
erosketagatik
zokketarako
boleto bat

Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko
loteriarekin

“Europa desegiteko gero eta estrategia argiagoa dute Ameriketako Estatu Batuek”

■ Iraken, regimena aldatu beharrean bertan behera erortza AEBrentzat oso kaltegarria dela esan zuen ■ Txikizio haundiko armak AEBk erabili dituela dio Aramendik.


UDALEKO Elkartasun Taldeak antolatuta Mikel Aramendik hitzaldia eman zuen asteazkenean Biterin. Bi parte izan zituen hitzaldiak: lehengoan, Irakeko gerrari buruz aritu zen eta bigarren zatian, AEB-ren asmoei buruz.

Gerra ez da bukatu

Aramendik esan zuen gerra Hussein agintetik botatzea baldin bada, gerra bukatu dela, baina, gerra amerikarrek boterea hartza bada, gerra ez dela inolaz ere bukatu. Horregatik uste du Hussein errejimena ordezkatu beharrean erortza txarra dela AEBrentzat, oraingo anabasa politikoa konpontzea ia ezinezkoa egingo zaielako.

Iraken ehundaka mila soldadu eta herritar armatuak daude orain, inongo aginte eta ordenik gabe eta horrek AEBk jarri nahi duen aginte berriarentzat arrisku handia dakarrela uste du Aramendik.

Irakeko gerraren inguruan esan zuen, baita ere, estrategikoki oso gerra estandarra eta odoltsua izaten ari dela eta txikizio haundiko armak Irakek ez baina Estatu Batuek bai, erabili dituztela.



Mikel Aramendi asteazkenean Biterin.

Europaren aro berria

Hitzaldiko bigarren zatian AEBren egungo joerari buruz aritu zen Aramendi. Esan zuen mundu unipolar batean bizi

“Nire galdera da: AEB egiten ari den erasoak zer dira indartsu ala ahul dagoen seinale”

garela azken urteetan, alegia, AEBk ez duela indarrean eta militarki itzalik egingo dionik.

Horren bueltan mundua bere egin nahian ari da AEB Aramendiren ustez. ONURI aintzakotzat hartuko ez duela esan dion bezala, Europari ere adierazi dio bakoitza non dagoen, eta ahalegin berezia egingo du Europa zatitzeko, berari itzalik egin ez diezaiion. Aramendiren ustez, Europak jakin beharko du mundua ikussten azken urteetan Asiak edo Afrikak jakin duten bezala, hau da, militarki gutxiago direla jakinda. Horretaz jabetu ezean politikoki gauzak lortzea Europari zail egingo zaioala uste du Aramendik,

AEBak erori artean noski. Horri buruz ere hitz egin zuen eta kazetari itsasondoarraren ustez AEBak eroriko dira munduko nagusitzatik. Bere ustez barrutik puskatuko dira gainera AEBak, bertako jendea iritsiko baita egiten ari diren sarraski guztia ez irenstera. Gaur egunean AEBri militarki beldur pixka bat sortu liezaioketen herrialdeei buruz ere aritu zen Aramendi, eta nola ez Txina aipatu zuen. Baina, kazetariaren ustez Amerikarrek Txina pakean utzik dute, bai baitakite hor zer galdu haundia daukatela. □



Museko sarituak eta elkarteko arduradunak. Hiru txapeldunak zutik, erdi erdian.

Txantxangorrin banatu dituzte museko sariak. Ostiral iluntzean banatu zituzten aurtengo museko sariak Txantxangorrin, afalondoan. Bi bitara irabazole, Goñi Bilbao gelditu dira; bigarren, Karlos-Javi; hirugarren, Toño-Kintxo; eta laugarren Ibon-Rodri. Buruz buru Luis Garayarrek irabazi du; bigarren, Ormazabal; hirugarren, Etxarri; eta laugarren, Galan. Txantxangorrik sari emaleei eskerrak eman dizkie: Alberro, Astarbe, Bereziartua, Gurutzeta, Altzueta, Oiarbide, Otsuenea, Rufino eta Eizmendi sagardotegiak, Arizeta, Barberena Arana, Caja Laborala, Casa Aranzabal, Diregui, DV, Gorostegi anaiak, Ibañez altzariak, Iñaki Iparragirre, ITH, Portalondo, QUISER, Bixente Goikoetxea tailerrak, Villaverde, Vinicola Gipuzcoana, Bachiller ardoak eta Betiko kafeak. □



Zapa 8 - 943 33 15 06



HERNANIKO UDALA

Hernanin, 2003ko apirilaren 4an
Euskara delegatua



Udalekuetarako begiraleak kontratzea: Hernaniko Udalak begiraleak kontratatu behar ditu Uztaleko Udalekuetan lanean aritzeko. Izena emateko Euskara Zerbitzuan dauden eskaide-orriak aurkezu behar dira,

beharrezkoak diren agiriekin batera. Epea zabalik dago apirilaren 7tik maiatzaren 6ko 13:00ak bitartean. Informazio gehiagorako deitu Euskara Zerbitzura, 943 33 70 29 telefonora.

Segik bilera deitu du mendi martxaren berri emateko

■ Bihar, astelehena, 20:00etan Biterin.

SEGI gazte erakundeak bilera egingo du datorren astelehenean, 20:00etan Biterin, mendi martxaren berri emateko. Segik Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa ohar batean Euskal Herria salbuespen egoeran dagoela esaten du, eta “herri honen kontrako era-soak eremu zabala gorra zabaltzen” ari direla inpunitate osoz. Segik dio “estatu faxistek gure herria anikilatzeko” apustu garbia egin dutela, baina, herri hau askatzeko konpromisoa aspaldi hartu

dutela eta lortu arte ez direla geldituko.

Erantzun beharra

Ematen duten egurrari “kalean zein bakoitzak bere esparrutik” erantzungo zaiola diote eta erantzun horren barruan kokatzen dute mendi martxa. Getxo-Gernika mendi martxa 3 egunetan egingo da Aste Santuko oporretan eta tartean kontzertuak eta bestelako ekitaldiak antolatu dituzte. Segik dei egin die Hernaniko gazztee partea hartzera. □

HITZ BITAN

✓ BOLA

Regularidadeko azken tiraldia gaur Lasarten. Regularidadeko azken tiraldia izango da gaur Lasarten, Mitxelineko kanpoan. Inskripzioa 10:00etatik 11:30etara da eta 16:30etatik 17:30etara. Ibon Minerrek regularidadea irabazteko aukerak ditu.

✓ ERRUGBIA

Kopako lehen partidua gaur. Hernanik Euskadiko Kopako lehen partidua du gaur Sestaoren kontra. Landaren, 11:00etan. □

ZERBITZUAK

✓ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa
☎ 943 557738
- Gauzez: Bulnes Florida auzoa
☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

Garajea salgai Urbieta kalean: 943 55 20 81

Etxebizitzeta eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (seguritasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

Haurra raintzeko neska euskalduna behar dugu, Ordutegia: Astelehenetik larubatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: 943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)

Etxea salgai Zikuñaga auzoan: 4 logela, sala, sukaldea eta komona. Prezia: 150.000 euro. Bigarren etxeak egiteko aukera. Deitu: 656 73 60 93 (17:00etatik aurrera).

Pertsona bat behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. 609 761085 (20:00etatik aurrera deitu).

BILDU HERNANI HAUTESKUNDEETAN

Gutako bakoitzaren ideia politikoak edozein direlarik, behean sinatzen dugunok Bildu Hernani plataformak datozen hauteskundeetan aurkezu behar duela uste dugu, eta horregatik gure sinadura ematen dugu.

- Manuel Odriozola (Apaiza)
- Jose Maria Landa (Apaiza)
- Juan Jose Arregi (Apaiza)
- Jose Luis Aperribai (Apaiza)
- J.Manuel Aramayo (Exteberriko auz.)
- Txomin Gainza (Arrigoainpea auzo.)
- Jose M. Belegain (Txalapartako lehend.)
- Manu Loiñaz
- Jose M. Huici (Ur-Miako lehendak.)
- Mikel Armendariz (Elur-Txoriko lehen.)
- Itziar Pagoaga (irakaslea)
- Eli Igartzabal (irakaslea)
- Nekane Idarreta (irakaslea)
- Izquierdo Egiguren (irakaslea)
- Josu Oiaga (Pelotaria)
- Nekane Erazquin (LAB Osasung. auz.)
- Garbiñe Tijero (Txistularia)
- Patxi Apeztegia (Hern. Inst. Zuzend.)
- Joxean Goikoetxea (Musikaria)
- Jexux Mari Irazu (Bertsolaria)
- Estitxu Eizagirre (Bertsolaria)
- Unai Agirre (Bertsolaria)
- Iñaki Zelaia (Bertsolaria)
- Aritz Zerain (Bertsolaria)
- Edorta Elosegi (Zinemagilea)
- Maria Jesus Aizpurua (Gerentea)

- Gregoria Goikoetxea (Merkataria)
- Imanol Kamio (Musikaria)
- Ibon Miner (Ereñotzko auzoelk.)
- Benjamin Miranda (Karabelko auzo.)
- Nagore Barrenetxea (Martindegi. auzo.)
- Roberto Espinosa (Sorgintxulo. auzo.)
- Juan Manuel Garcia (Antziola auzo.)
- Arantxa Mujika (Osiñaga. auzoelk.)
- Pili Alkorta (Akarregiko auzoel.)
- Miguel Jimenez (Latxunb. auzoelk.)
- Gerardo Plaza (Xake jokalaria)
- Breogán Estevez (Xake jokalaria)
- Juan Rodriguez (Errugbi Elkar.)
- Joxe Kriz Elosegi (Errugbi Elk.)
- Rafael Larretxoa (Errugbi Elk.)
- Jexux Garin (CDH Futbola)
- Ricardo Ramos (CDH Futbola)
- Bautista Biurrun (CDH Futbola)
- Jon Loran (CDH Futbola)
- Mikel Tolosa (Tabernaria)
- Pako Pavon (Tabernaria)
- M Jesus Iturbide (Tabernaria)
- Kristina Martinez (Tabernaria)
- Iker Garmendia (Dendaria)
- M Kruz Muguruza (Dendaria)
- M Isabel Casco (Dendaria)